## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 456600 INGURUMEN JASANGARRITASUNA ETA KLIMA ALDAKETA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 456600 SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL Y CAMBIO CLIMÁTICO

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Hona hemen 2022ko ekitaldian Ingurumen Jasangarritasunaren eta Klima Aldaketaren Programaren barruan egindako jardunen laburpena:

Degradatutako espazio eta paisaiak leheneratzeko arloko ekintza eremuari dagokionez, kontserbatu eta berreskuratzeko hainbat esku hartze ere gauzatu dira 2022an, batez ere ingurumenaren aldetik balio berezia eta sentsibilitateko eremuan tratatzean.

Lan ildo horretan, zigilatutako hondakindegi zaharren eta kontrolik gabeko isurketen ondorioz degradatutako eremuen tratamendu, berreskuratze eta ingurumen hobekuntzako lanei jarraipena eman zaie. Horri dagokionez, Lurralde Historikoko hainbat lekutan hondakinak garbitzeko eta kentzeko, zigilatzeko eta landareak lehengoratzeko egindako jarduketak nabarmendu behar dira: Caicedo-Yuso, Uribarri Harana, Alda, Bujanda, Kontrasta, Izarra, Abornikano, besteak beste.

Ingurumena berreskuratzeko beste jarduketa batzuen helburua izan da eragin antropikoa duten hainbat eremutan esku hartzea Asparrena, Iruraiz-Gauna, Erribera Beitia, Donemiliaga, Urkabustaiz, Lantaron, Gaubea eta Kanpezu udalerrietan, eta landare ezarpeneko lanak egitea, eragin inguruneetan azpiegitura berdea sortu eta hobetzeko.

Ibai inguruneei arreta jarri zaie Lantarongo eta Bastidako ibaiertzeko lursailetan, Ebro ibaiaren Kontserbazio Bereziko Eremuan, eta Langraiz Okan, Zadorra ibaiaren Kontserbazio Bereziko Eremuan, baso autoktonoa leheneratzeko obrak gauzatuta.

Arabako Mendialdeko natura asfaltoen meatze paisaietan esku hartu da Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin izenpetutako lankidetza hitzarmenean jasotako ekintzak garatuz, garrantzi historiko eta

### I. MEMORIA

Las actuaciones realizadas a lo largo del ejercicio 2022 dentro del Programa de Sostenibilidad Ambiental y Cambio Climático se resumen a continuación:

En lo que se refiere al campo de acción en materia de Restauración de Espacios y Paisajes Degradados se han ejecutado a lo largo de 2022 diversas actuaciones de conservación y regeneración focalizadas principalmente al tratamiento de ámbitos de especial valor y sensibilidad ambiental.

En esta línea de trabajo, se ha dado continuidad a los trabajos de tratamiento, recuperación y mejora ambiental de antiguas escombreras selladas y ámbitos degradados por vertidos incontrolados. Cabe destacar a este respecto las actuaciones de limpieza y retirada de residuos, sellado y restauración vegetal llevadas a cabo en diversos emplazamientos del Territorio Histórico: Caicedo-Yuso, Ullibarri-Arana, Alda, Bujanda, Contrasta, Izarra, Abornikano, entre otros.

Otras actuaciones de Recuperación Ambiental han tenido como objetivo la intervención en diversas áreas degradadas en ámbitos de influencia antrópica en los municipios de Asparrena, Iruraiz-Gauna, Ribera Baja, San Millán, Urkabustaiz, Lantaron, Valdegovia y Campezo con la ejecución de trabajos de implantación vegetal para creación y mejora de la infraestructura verde en los entornos de influencia.

Los entornos fluviales han sido objeto de atención con la ejecución de las obras de regeneración del bosque autóctono en parcelas ribereñas de Lantarón y Labastida en la Zona Especial de Conservación del río Ebro así como en la Zona Especial de Conservación del río Zadorra en Nanclares de la Oca.

Los Paisajes Mineros de Asfaltos Naturales de la Montaña Alavesa han sido objeto de intervención con el desarrollo de las acciones previstas en el Convenio de Colaboración suscrito con el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio

meatzari handiko meatze espazio zahar horietan natura ingurunea berreskuratzeko proiektuak egiteko eta jarduketak gauzatzeko, eta haien baliabide geologiko, paisajistiko, kultural, hezitzaile eta ekoturistikoei balioa emateko.

Lan esparru horretan, Lucia meategia (Arraia-Maeztuko udalerria) segurtasunean jartzeko, sendotzeko eta erabilera publikorako eta ekoturistikorako egokitzeko obrak egiten jarraitu da 2021ean. Meategia meatze paisaien multzo horretan balio handieneko kokaguneetako bat da, eta 2023an amaitzea aurreikusten da.

Era berean, Lozako (Urizaharra) Diana meatze barrutia sendotu, ingurumena lehengoratu eta erabilera publikorako egokitzeko esku hartze proiektua egin da, eta eremua segurtasunean jartzeko obrak gauzatzeko lehen fasea egin da. Obrek 2023an jarraituko dute, Eusko Jaurlaritzarekin dagoen lehen aipatutako lankidetza hitzarmenaren esparruan.

Arabako Mendialdean ingurumen degradazio handia izan duen asfalto naturalen beste meatze ingurune bat Atauriko Teresa eta Carmen meategien ekialdeko sektoreko hondakindegiei dagokiena izan da, Uzkiko Parke Naturalaren barruan. Zehazki, ingurumena lehengoratzeko obrak gauzatzeko proiektua egin da, eta 2023an amaituko diren lanak egiten hasi dira.

Azkenik, gai horri dagokionez, meatze paisaia horiei lotutako ingurumen eta ondare balioak zabaltzeko eta dibulgatzeko egindako lanak azpimarratu behar dira. Lan horietan, herritarrei zuzendutako informazioa, argazkiak eta ikus-entzunezkoak dakartzan txosten monografiko bat egin eta editatzeko aukera jaso da.

Ibilbide Berdeen Sarea egokitu eta hobetzeari, landa eta hiri lotura bultzatzeko azpiegiturei, mugikortasun modu jasangarrien sustapenari eta ingurune naturalera errespetuz hurbiltzeari buruzko kapituluan, nabarmendu behar dira Vasco Navarro Trenbidearen Bide Berdean Urbina inguruan trazadura zaharra lehengoratzeko eta oinezkoen eta txirrindularien joan-etorrirako egokitzeko egindako obrak, FEDER



Ambiente del Gobierno Vasco para la elaboración de proyectos y ejecución de actuaciones de recuperación del medio natural en estos antiguos espacios mineros de gran significación histórico-minera, y para la puesta en valor de sus recursos geológicos, paisajísticos, culturales, educativos y ecoturísticos.

En este marco de trabajo se ha continuado en 2022 con las obras de puesta en seguridad, consolidación y acondicionamiento para el uso público y ecoturístico de la mina Lucía (municipio de Arraia-Maeztu), uno de los enclaves de mayor valor de este conjunto de Paisajes mineros, con finalización prevista en 2023.

Se ha elaborado también el proyecto de intervención para la consolidación, recuperación ambiental y adecuación para el uso público del Coto Minero Diana en Loza (término municipal de Peñacerrada), llevándose a cabo una primera fase de ejecución de obras para la puesta en seguridad del ámbito. Las obras tendrán su continuidad en 2023 en el marco del Convenio de Colaboración antes citado con el Gobierno Vasco.

Otro de los entornos mineros de asfaltos naturales de la Montaña Alavesa con elevado grado de degradación ambiental en los que se ha trabajado ha sido el correspondiente a las escombreras del sector este de las minas Teresa y Carmen del complejo de Atauri, ubicadas dentro del Parque Natural de Uzki  En concreto se ha elaborado el proyecto de ejecución de obras de restauración ambiental y se ha iniciado la ejecución de los trabajos que finalizarán en 2023.

Por último y en lo referente a esta temática, resaltar los trabajos realizados en las facetas de difusión y divulgación de los valores ambientales y patrimoniales vinculados a estos Paisajes Mineros, que ha contemplado la elaboración y edición de un Dossier monográfico informativo, fotográfico y audiovisual dirigido a la ciudadanía.

En el capítulo de Acondicionamiento y Mejora de la Red de Itinerarios Verdes, infraestructuras para el impulso de la conexión rural y urbana, promoción de los modos de movilidad sostenibles y acercamiento respetuoso al medio natural, cabe resaltar las obras llevadas a cabo de recuperación del antiguo trazado y su acondicionamiento para el tránsito peatonal y

Programa Operatiboak finantzatutakoak.

Era berean, 2022ko ekitaldian, hobekuntza obrak egin dira: zoruak sendotu, ezpondak sendotu, eta ekipamenduak hobetu dira Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarean zerbitzuan dauden hainbat zatitan; zehazki, antzinako Vasco Navarro trenbidearen bide berdean (Puente Alto-Olaranbe zubia), Uribarri Ganboako urtegiaren ibilbide berdean (Azua pasabidearen inguruan), GR-25ean (“Itzulia Lautadari mendi oinean”) eta Nerbioiko Parke Linealeko bide berdean (Salbioko geralekuaren zatia).

Aipatu behar da, halaber, Arabako Ibilbide Berdeen Sarea egokitzeko eta hobetzeko obrak gauzatzeko proiektuak idazteko egin den alderdia, etorkizuneko aurrekontu ekitaldietan inplementatzeko asmoarekin. Horretarako, Agurain-Zalduondo-Araia bizikletentzako bidearen eta inguruko industrialdeekiko lotunearen proiektu betearazleak idatzi dira, bai eta Arabako Mendialdeko Asfalto Naturaleko Meatze Paisaien interpretazio, oinezko eta bizikleta ibilbidea seinaleztatzekoa ere.

Espazio publikoak jolaserako erabiltzeko egokitzeak ingurumen baliabideez gozatzea bultzatzen du, Arabako natura eta paisaia ondarearen gaineko ezagutza sustatzen du eta naturan izanik ekojolaserako jarduerak garatzen laguntzen du. Arabako Lurralde Historikoko parkeak gero eta gehiago erabiltzeak erakusten du programak zer nolako arreta ematen dien.

Garaioko eta Landako parkeetan, horien hondartzek 2016tik urtean-urtean Bandera Urdina eskuratu ohi dutenak, natura ingurunea, ekipamenduak eta azpiegiturak hobetzeko zenbait esku hartze gauzatu da. Ildo horretan, mugikortasun arazoak dituzten kolektiboentzako irisgarritasuna hobetzeko egindako lanak nabarmendu behar dira: Landako parkearen ekialdeko sektorean pasabide egokitua eraikitzea eta uretan sartzeko arrapala egokitzea, Garaioko parkeko Moskurio hondartzan bainu lagundua hartzeko.



ciclista en la Vía Verde del antiguo Ferrocarril Vasco Navarro en el entorno de Urbina, obras financiadas por el Programa Operativo FEDER.

Asimismo, en este ejercicio 2022 se han ejecutado obras de mejora consistentes en refuerzo de firmes, consolidación de taludes, afirmado y mejora de equipamientos en diversos tramos de la Red de Itinerarios Verdes del Territorio Histórico de Álava en servicio, concretamente en la Vía Verde del antiguo ferrocarril Vasco Navarro en Puente Alto-Olarambe, Ruta Verde del Embalse de Ullibarri Gamboa en el entorno de la pasarela de Azua, en el GR-25 “Vuelta a la Llanada a pie de Monte” y en la Vía Verde del Parque Lineal del Nervión en el tramo del Apeadero de Salbio.

Señalar también la faceta desarrollada de redacción de Proyectos de ejecución de obras para el acondicionamiento de nuevas rutas y mejora de la Red de Itinerarios Verdes de Álava con vistas a su implementación en ejercicios presupuestarios futuros. Se han redactado a tal efecto los Proyectos ejecutivos de la  Vía ciclable Salvatierra-Zalduondo-Araia y conexión con los Polígonos Industriales del entorno, así como el de señalización del itinerario interpretativo, peatonal y ciclable,  de los Paisajes Mineros de Asfaltos Naturales de la Montaña Alavesa.

El acondicionamiento de espacios públicos para el uso recreativo potencia el disfrute de los recursos ambientales, promueve el conocimiento del Patrimonio Natural y Paisajístico de Álava y favorece el desarrollo de actividades ecorrecreativas en contacto con la Naturaleza. La utilización creciente de los Parques del Territorio Histórico es reflejo de la atención que a los mismos se plantea desde el programa.

Los Parques de Garaio y Landa, cuyas playas han obtenido ininterrumpidamente desde 2016 el distintivo de Bandera Azul, han sido objeto de varias actuaciones dirigidas a mejorar su entorno natural, equipamientos e infraestructuras. Hay que destacar en esta línea los trabajos realizados de mejora de la accesibilidad para colectivos con problemas de movilidad, consistentes en la construcción de una pasarela adaptada en el sector este del Parque de Landa y la adecuación de la rampa de entrada en el agua para baño asistido llevada a cabo en la playa de

Era berean, Garaioko parkeko bideetako zenbait zatitan asfaltozko garaztatzearen bidez zoruak hobetzeko obrak egin dira, eta Garaioko eta Landako hondartzak lehengoratzeko hainbat lan egin dira.

Aipatzekoa da, halaber, Europako Batzordeak 2019ko ekainaren 22an "Wildlife Economy" mugaz gaindiko lankidetza proiektuan emandako parte hartzea. Aldundiak Europako beste 7 bazkiderekin parte hartzen du proiektu horretan. Lan esparru horretan, nabarmentzekoa da Eskualdeko Ekintza Planaren dokumentua amaitu dela. Bertan, eskualdeko garapen sozioekonomikoari laguntzeko ikuspegitik ezarri beharreko lehentasunezko proiektuak eta jarduketak identifikatzen dira, naturaren aktiboetan oinarrituta, bai eta identifikatutako ekintzak bultzatzeko egindako lanak ere.

Zerbitzuaren jarduera esparruak beste arlo bat ere hartzen du: plan, programa eta proiektuek ingurumenean duten inpaktua ebaluatu eta zuzentzea. Izan ere, egiaztatu da hori garrantzi handiko bitartekoa dela gure lurraldeko ingurumen balio eta baliabideak antolatu eta babesteko. Horiek horrela, Ingurumen Ebaluazioaren Atalak horri buruzko txostenak igorri eta kasuan kasuko espedienteak bideratu ditu.

Energia eta Klima Aldaketaren jarduketa ardatzari dagokionez, garrantzi handia du sailak urtero lurraldeko toki erakundeentzat egiten duen deialdiak, jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzak diruz laguntzeko. Hauek dira laguntza ekonomikoaren xede: efizientzia energetikoko planak egitea eta neurriak ezartzea, eraikin eta ekipamenduetan energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak (eguzki energia termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, minihidraulikoa, geotermia, aerotermia eta beste batzuk), eguzki argiteria publikoko ekipamendua, eta mugikortasun elektrikoa bultzatzea, besteak beste, erabilera publikoko karga puntuak eraikiz eta abian jarriz eta titulartasun publikoko flotetan ibilgailu elektrikoak erosiz.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste 21 erakunde publiko eta pribaturekin batera, "LIFE proiektua - URBAN

Moskurio en el Parque de Garaio.

Se han ejecutado asimismo obras de mejora de firmes mediante riego asfáltico en diversos tramos de los viales del Parque de Garaio, y se han llevado a cabo diversos trabajos de restauración en las playas de Garaio y Landa.

Hay que reseñar también la participación en el Proyecto de Cooperación transfronteriza "Wildlife Economy" concedido por la Comisión Europea el 22 de junio de 2019 y en el que la Diputación participa con otros 7 socios europeos. En este marco de trabajo cabe destacar la culminación del documento del Plan de Acción Regional que identifica los proyectos y actuaciones prioritarios a implementar desde la perspectiva de apoyo al desarrollo socioeconómico de la Comarca apoyado en los activos de la Naturaleza, junto con los trabajos llevados a cabo para impulso de las acciones identificadas.

La Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, otra de las disciplinas que abarca el ámbito de actuación del Servicio y que se confirma como una herramienta de gran importancia en la ordenación y protección de los valores y recursos ambientales de nuestro territorio, ha sido objeto de atención por la Sección de Evaluación Ambiental a través de la emisión de informes y la instrucción de los correspondientes expedientes.

En cuanto al eje de actuación de Energía y Cambio Climático tiene una especial relevancia la convocatoria anual del Departamento dirigida a las Entidades Locales del territorio para el apoyo de acciones de Sostenibilidad Energética. Son objeto de ayuda económica la elaboración de planes e implantación de medidas de eficiencia energética, las instalaciones de aprovechamiento de energías renovables en edificios y equipamientos: solar térmica, fotovoltaica, minieólica, biomasa, minihidráulica, geotermia, aerotermia y otras, el equipamiento de alumbrado público solar, así como el impulso a la movilidad eléctrica a través de la construcción y puesta en marcha de puntos de recarga de uso público y adquisición de vehículos eléctricos en flotas de titularidad pública, entre otras.

Por otra parte la Diputación Foral de Álava participa junto con otros 21 instituciones y entidades públicas y

KLIMA 2050” proiektuan parte hartzen du.

Europako Batzordeak 2019. urtearen amaieran onartu zuen proiektu hori, klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko proiektu integratuen arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko klima aldaketaren 2050 estrategia ezartzen laguntzea du helburu. Garapen eta egikaritze aldia 2025eko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

Arabako Foru Aldundiak parte hartzen duen ekintzak bideratuta daude mugikortasun jasangarria sustatzera, emisioak murriztu eta bizitza osasungarrira, energia berriztagarriak erakusteko proiektuak garatzera eta Azpiegitura Berdea indartzera.

Lan esparru horretan, 2022ko ekitaldian, honako jarduketa hauek nabarmendu behar dira:

- Elektrizitatea kargatzeko guneak dituzten bizikleta aparkaleku seguruen proiektua idaztea eta instalatzea, hiri eremuak eta industrialdeak ibilbide berdeen bidez lotzea sustatzeko: jarduketak Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdean
- Azpiegitura Berdea. Naturan oinarritutako soluzioak ibai arroetan. Nerbioi ibaiaren arroan degradatutako eremuen ingurumena lehengoratzeko obrak egitea.
- Energia berriztagarriak. Proiektu pilotua. Lurraldearen azterketa bat egitea biztanlegune bat identifikatzeko, Arabako Lurralde Historikoan energia berriztagarrien bidezko autohornidurаren proiektu erakusle bat garatzeko.
- Legaireko pagadiaren (Entzia KBEa) erresilientzia azterketarako lanak jarraitzea 2018ko tornadoaren ondorioen ostean. Lan horrek jarraipena izango du hurrengo ekitaldietan, harik eta 2025ean amaitzen den arte.

Azkenik, klima aldaketa arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko ekintza ardatz horretan bereziki nabarmendu behar da KLIMA ARABA 2050 Estrategia formulatzeko lanak amaitu direla, joan den uztailean Batzar Nagusietako Ingurumen Batzordeak behin betiko dokumentua onartu ondoren.

privadas del País Vasco en el “Proyecto LIFE-Integrado URBAN KLIMA 2050”.

Este Proyecto fue aprobado por la Comisión Europea a finales del año 2019 dentro del área de Proyectos integrados de Mitigación y Adaptación al Cambio Climático y tiene por objeto contribuir a la implementación de la Estrategia de Cambio Climático 2050 del País Vasco. Su periodo de desarrollo y ejecución se prolonga hasta el 31 de diciembre de 2025.

Las acciones en las que participa la Diputación Foral de Álava están dirigidas al fomento de la movilidad sostenible, reducción de emisiones y vida saludable, al desarrollo de proyectos demostrativos de Energías Renovables y al refuerzo de la Infraestructura Verde.

En este marco de trabajo, en este ejercicio 2022 cabe destacar la realización de las siguientes actuaciones:

- Redacción de Proyecto e instalación de aparcabicis seguros con puntos de recarga eléctrica para fomentar la conexión de ámbitos urbanos con Polígonos Industriales a través de Itinerarios Verdes: actuaciones en la Vía Verde del Parque Lineal del Nervión
- Infraestructura Verde. Soluciones basadas en la Naturaleza en Cuencas Fluviales. Ejecución de obras para la restauración ambiental de ámbitos degradados en la cuenca fluvial del Nervión.
- Energías Renovables. Proyecto piloto. Realización de un análisis territorial para la identificación de un núcleo de población para el desarrollo de un proyecto demostrativo de autoabastecimiento mediante energías renovables en el Territorio histórico de Álava.
- Continuación de los trabajos para estudio de resiliencia del hayedo de Legaire (ZEC Entzia) tras los efectos del tornado de 2018, trabajo que tendrá su continuidad en los ejercicios siguientes hasta su finalización en 2025.

Por último, debe destacarse especialmente en este eje de acción para la mitigación y adaptación al Cambio Climático la culminación de los trabajos de formulación de la Estrategia KLIMA ARABA 2050 con la aprobación del documento definitivo por la Comisión de Medio Ambiente de las Juntas Generales

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 456600 INGURUMEN JASANGARRITASUNA ETA KLIMA ALDAKETA

Dokumentua Arabako Foru Aldundiaren eta Lurralde Historikoaren kudeaketa eta gobernantza tresna estrategikoa da datozen urteetarako, zeharkakoa eta erakundeartekoa, klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko neurriak eta ekintzak bultzatzeko eta abian jartzeko eta “karbono gutxiko” energia eredu baterantz aurrera egiteko.

Arabako Lurralde Historikoko Azpiegitura Berdearen Plana ere landu da, klima aldaketaren ondorioen aurrean erresilientzia egokitzeko eta indartzeko arloko beste dokumentu estrategiko bat.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Ekologia eta paisaia leheneratzeko eta habitat naturalak hobetzeko 2022an egindako jardunaren ondorioz, 196.762 m2 leheneratu eta hobetu dira ingurumenaren aldetik.

Mugikortasun jasangarrirako azpiegiturei dagokienez, Arabako Ibilbide Berdeen Sarea egokitzeko eta hobetzeko esku hartzeak gauzatu dira 29,070 km-tan. Kudeatu, zaindu eta kontserbatu beharreko sarearen luzera, guztira, 1.104 km da.

Garaio, Landa eta Mendixurko parkeetan 419.439 bisitari egon dira 2022an. Garaioko Parkeko informazio bulegoan 1614 bisitari artatu dira. Ingurumen hezkuntzako jardueren programan 1.238 pertsonak hartu dute parte, bai ikasleei zuzendutako jarduеretan, bai herritarrekin egindakoetan.

Plan, programa eta proiektuen ingurumen inpaktuaren ebaluazio eta zuzenketari dagokionez, 160 txosten tekniko, ingurumen adierazpen estrategiko eta ingurumen inpaktuaren adierazpen baino gehiago egin dira 2022an.

Arabako toki erakundeek sustatutako guztira 40 jardun lagundu dira diruz, Jasangarritasun Energetikoaren Programaren barruan, horrekin betetzeko energia eraginkortasunez erabiltzea eta aurreztea bultzatu, isurketak murriztu eta energia berriztagarrien ezarpena

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 456600 SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL Y CAMBIO CLIMÁTICO

el pasado mes de julio. El documento se configura como una herramienta estratégica de gestión y gobernanza de la Diputación Foral de Álava y del Territorio Histórico para los próximos años, de carácter transversal e interinstitucional, para el impulso y puesta en marcha de medidas y acciones para mitigar y adaptarse al Cambio Climático y propiciar el avance hacia un modelo energético “bajo en carbono”.

El Plan de Infraestructura Verde del Territorio Histórico de Álava es otro de los documentos estratégicos en el campo de la adaptación y fortalecimiento de la resiliencia frente a los efectos del cambio climático en el que se ha trabajado.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Las actuaciones de restauración ecológico-paisajística y mejora de los hábitats naturales llevadas a cabo en 2022 han supuesto la regeneración y mejora ambiental de 196.762 m2.

En cuanto a las intervenciones en infraestructuras para la movilidad sostenible han sido objeto de actuaciones diversas de adecuación y mejora un total de 29,070 Km de la Red de Itinerarios Verdes de Álava. La longitud total de la Red objeto de gestión, vigilancia y conservación es de 1.104 Km.

Los Parques de Garaio, Landa y Mendixur han recibido en 2022 un total de 419.439 visitantes. Han sido atendidos en la Oficina de Información del Parque de Garaio 1614 visitantes. El número de personas participantes en el programa de actividades de educación ambiental ha sido de 1.238, tanto en actividades dirigidas a escolares como las realizadas con la ciudadanía.

En materia de Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, se han emitido más de 160 informes técnicos, Declaraciones Ambientales Estratégicas y Declaraciones de Impacto Ambiental a lo largo del año 2022.

En cumplimiento de los objetivos de impulso a la eficiencia en el uso de la energía y ahorro energético, la reducción de emisiones y el fomento a la implantación y aprovechamiento de Energías Renovables, dentro del Programa de Sostenibilidad

eta aprobetxamendua sustatzeko helburuak.



Energética se han subvencionado un total de 40 actuaciones promovidas por las Entidades Locales Alavesas.